



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2019CONB0011
COD. EXP.

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	HITZARMENAK
TITULARRA TITULAR	IRAURGI ABESBATZA
HELBIDEA DIRECCIÓN	AZKOITIA
NAN DNI	

AZKOITIKO UDALAREN ETA IRAURGI ABESBATZAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina Azkoitiako Udaleko kultur zinegotzia eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Beste alde batetik Itziar Izagirre Larrañaga, Iraurgi Abesbatzako lehendakaria eta IFK G-20313060 duen Iraurgi Abesbatza erakundearen izenean.

Bi alderdiek onartu diote elkarri hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa edukitzea, eta Iraurgi Abesbatza eta bere ordezkartzaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adieraz duenaren arabera. Beraz, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

1.-Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 25. artikulua arautzen du udalerriek, beren interesak kudeatzeko ahalmenaren eta beren eskumenen esparruan, herritarren eta herriko taldeen beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardura mota guztiak bultzatu eta behar adina zerbitzu publiko eman ditzakeela. Horrez gainera, arau horrek xedatzen du udalerriak eskumena duela kultur jarduerak eta aisialdia antolatzeko.

2.- Iraurgi Abesbatza irabazteko asmorik gabeko elkarte da.

3.- Iraurgi Abesbatza elkarteak, beraien egutegitik at, Udalak proposatzen dizkion herriko festa eta kutur ekitaldietan parte hartzen du.

4.-Lankidetzak hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Iraurgi Abesbatzaren gizarte eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

5.-Udalak eman izan ditu diru-laguntzak lehen ere, eta horrela egiten jarraitzeko asmoa du, onura handiko zerbitzua ematen baitie Iraurgi Abesbatzak herritarrei.

6.-Diru-laguntza zuzen hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko.

Interes hauen ondorioz, bi aldeek hitzarmen hau egiten dute, ondorengo hitzarmen baldintza edo xedapenen arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2019. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Iraurgi Abesbatzari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Iraurgi Abesbatzak ondoren aipatzen diren jarduerak antolatu ditzan:

-Herriko festetan parte hartu: Salvea, txupinazoa, San Jaun sua, San Andresetako emanaldia..

-Kontzertuak eman herrian: Udaberrikoa, Santa Zezilia, Gabonetakoa...

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Iraurgi Abesbatzari ZAZPI MILA EUROKO (7.000 euro) diru laguntza emango dio bere ekintzetarako, 2019ko udal aurrekontuko sail honetatik: 1.3100.481.334.00.02. Diru laguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako Iraurgi Abesbatzak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

-2019ko programa eta jardueren proiektua.

-2019ko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.

-Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia.

HIRUGARRENA: 2019ko abenduaren 31a baino lehenago aurreko urteko diru-laguntza justifikatzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu Iraurgi Abesbatzak, diru-laguntzak arautzen duen 2008ko apirilaren 29an hartutako 24/2008 Dekretu Foralaren 52 artikulua xedatutakoaren arabera:

-Egindako jarduera guztien laburpen memoria.

-Aurrekontuan jasotako aurrekontu-sailen balantze ekonomikoa eta banaketa. Jardueren gastuaren justifikazioa eta fakturen eta dokumentuen zerrenda, diruzainak sinatua.

-Jasotako diru sarrera guztien agiriak diruzainak izenpetuta.

LAUGARRENA: Diru laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru laguntza zurituta izan behar du. Bestalde, aurreko ekitaldiko balantzearen datuak aztertu ondoren, Iraurgi Abesbatzak superabita balu dagokion likidazioan, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

BOSTGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketan bestelako diru laguntzekin, eta Iraurgi Abesbatzaren gainontzeko sarrerekin. Edonola ere, ezingo da gain finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, diru laguntza murriztuko zaio Iraurgi Abesbatzari.

SEIGARRENA: Ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira inprimaki, ohar eta jakinarazpenak. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarazko testuari, udal ordenantzek horri buruz arautzen dutena betez.

ZAZPIGARRENA- Iraurgi Abesbatzak Aingeru kaleko 26an dagoen Baztartxo Antzokiko 1garren solairuko gelan izango du egoitza.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eraikin hau, Azkoitiko Udaleko Ondasun Erroldan 11 matrikula zenbakiarekin dago jasota.

Udalak doan lagako dio gela Iraurgi Abesbatzari bere erabilerarako. Lagapen hori prekarioz egingo da, eta ezinbesteko baldintza izango da hitzarmen honetan adostutako jarduera garatzea.

Udalak lokalari atxiki-tutako gastu guztiak ordainduko ditu.

Iraurgi Abesbatzak gela modu egokian erabili beharko du eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalarari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra.

BEDERATZIGARRENA: Administrazioako auzitegietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajek konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak diru laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Kultur zinegotzia
Sonia Vazquez Tejerina

Iraurgi Abesbatzako lehendakariak
Itziar Izagirre Larrañaga



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>